



Euskal Selektzioaren alde egin dute 50 pilotari baino gehiahok

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 29/06/2024

Agerraldi baten bidez, Euskal Herriari, ez zaiola aitortzen “selektzio propioa izateko duen eskubide kolektiboa” salatu dute pilotariak.

Gaur, Hendaiako (Lapurdi) Daniel Ugarte Beltzenia pilotalekuan, Espainiarekin eta Frantziarekin aritzeari uko egin dioten 50 pilotari inguru bildu dira, Euskal Herriko Euskal Pilota Selektzioaren Aldeko Mugimenduak deituta. Beraiekin batera hainbat lagun egon dira Beltzenian, “*Ez Frantzia ez Espainia, gurea Euskal Herrikoa da!*” zioen pankarta bati eutsita.

Agerraldian, egungo egoera azaldu dute. “Gaur egun, gure herriari, Euskal Herriari, ez zaio aitortzen selektzio propioa izateko duen eskubide kolektiboa. Horren ondorioz, oro har, euskal pilotariok nazioarteko txapelketa ofizialetan ezin dugu parte hartu Euskal Herriko selektzioarekin, eta, gainera, federazioen diziplina dela eta, txapelketa horietan parte hartzekotan, Euskal Herriak bereak sentitzen ez dituen koloreekin egin beharko genuke; hau da, Espainia eta Frantzia ordezkatzuz”. Jarraian, berien aldarrikapenak zehaztu dituzte: “Gu, euskal pilotariak garenez, gure nazioaren koloreekin eta gure ereserkiaren doinupean lehiatu nahi dugula aitortzen dugu. Beraz, Euskal Herriko selektzioak nazioartean eta txapelketa ofizialetan parte hartzeko duen eskubide kolektiboan eta indibidualean oinarrituta, zazpi herrialdek osatzen duten Euskal Herriko selektzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen dugu”. Hala, haien erabakiaren berri eman dute. “Gu ez gara ez frantziarrak, ez espainiarrak sentitzen, euskal herritarrak baizik. Ondorioz, ekarpen pertsonal gisa aipatu bi selektzio horiei uko egitea erabaki dugula jakinarazten dizuegu”.

Bukatzeko eskerrak eman dizkiete erabakia errespetatu eta babesa ematera bertaratu diren guztiei, “harro sentitzen gara zuen presentziarekin”, esan diete. Deia egin dute ere bai. “Dei zabala egiten diogu hemendik pilota elkarte, federazio, pilotari, epaile eta euskal pilota maite duen orori elkarlanean egin ditzagun urratsak euskal gizartearen gehiengo handi batek aspalditik amesten duen euskal pilota selektzioaren ofizialtasuna lortzeko”. “Gora Euskal Herriko euskal pilota selektzioa!” oihukatuz amaiera eman diote hitzartzeari.

Era berean, ekimenaren antolatzaileak, azken egunetan Euskadiko, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Iparraldeko pilota federazioek trabak jarri dizkietela salatu dute. Azaldu dutenez “federazioek esan digute gure gaia ez zutela sustengatzen, oztopo bat izan gintezkeelako Euskadikoa Nazioartekoan onartzeko bidean. Batez ere, Iparraldekoak jarri ditu oztopoak, ezetzaz harago, klub guztietara bere erantzun ezkorra zabaldu baitu. Helburua, pentsatzen dut, guri kalte egitea zela”.

<https://eh.lahaine.org/euskal-selektzioaren-alde-egin-dute>